



# PADDINGTON 2

## UNITATE DIDAKTIKOAREN GIDOIA



### PELIKULA IKUSTERA JOAN AURRETIK IRAKASLEAK EGITEKO LANA

Fitxa teknikoa  
Sinopsia  
Proposamen  
didaktiko hau  
lantzeko aholku  
metodologikoak



### PELIKULA IKUSTERA JOAN AURRETIK IKASLEEKIN EGITEKO LANA

Filmaren azala eta  
izenburutik abiatuta  
elkarriktarako gida  
Haurren Eskubideen  
Deklarazio  
Unibertsalari errepasoa



### PELIKULA IKUSI ONDOREN IKASGELAN EGITEKO LANA

Pelikula hitz batean  
Pertsonaien deskribapena  
Gidoiari buruz  
Elkarrikteta sustatzeko  
proposamenak:  
Familia  
Auzoa  
Laguntasuna  
Ariketa: Scrap Book



**PELIKULA IKUSTERA  
JOAN AURRETIK  
IRAKASLEAK  
EGITEKO LANA**

**FITXA TEKNIKOA**

**Izenburua:** Paddington 2

**Jatorrizko izenburua:** Paddington 2

**Zuzendaria:** Paul King

**Herrialdea:** Frantzia, Erresuma Batua

**Urtea:** 2017

**Iraupena:** 104 min.

**Generoa:** Familientzako komedia

**Banatzaila:** Espainiako Warner Bros. Pictures

**Ekoizlea:** Weinstein Company, The StudioCanal

**Zuzendaria:** Paul King

**Gidoia:** Paul King, Simon Farnaby

**Ekoizpena:** David Heyman

**Antzezleak:** Ben Whishaw, Sally Hawkins, Hugh Bonneville, Samuel Joslin, Julie Walters, Hugh Grant, Brendan Gleeson, Jim Broadbent, Peter Capaldi, Imelda Staunton

**SINOPSISIA**

Paddington pozik bizi da Brown familiarekin Windsor Gardens-en; komunitateko kide ezaguna bilakatu da, eta alaitasuna eta marmelada banatzen ditu nonahi.

Luci izeba kuttunaren ehungarren urtebetetzerako opari perfektua bilatzen ari zen bitartean, Paddingtonek liburu trokelatu berezi bat topatu zuen Gruber jaunaren antigoalekoen dendan, eta hainbat lantxo egiten hasi zen hori eros ahal izateko. Baina liburua lapurtu egin zuten, eta Paddington eta Brown-sendariari egokitu zitzaion lapurra topatzea...





**PELIKULA IKUSTERA  
JOAN AURRETIK  
IRAKASLEAK  
EGITEKO LANA**

**PROPOSAMEN DIDAKTIKO HAU LANTZEKO  
AHOLKU METODOLOGIKOAK**

Proposatzen dugun eredu metodologikoak gaitasun intelektuala eta kontzientzia soziala garatzea du oinarri. Ikaslearen ezagutza, sinesmenak, aurreiritziak eta izandako bizipenak izango dira abiapuntu, modu horretan, haien interes eta beharrekin konektatuko baitugu, baina urrats bat gehiago ere emango dugu: ikaskuntza berriak barneratu.



Aurrera pausu horiek ikasleek beraiek egingo dituzte taldean elkarrekin ikertuz, eta horixe izango da, hain zuzen, programa honen ezaugarri adierazgarriena, irakasleak ez baitie ezagutza zehatzik irakatsiko. Elkarrekin hausnartu, pentsatu eta hitz egin beharko dute taldearen ondorioak formulatu eta osatzeko. Irakaslearen lana taldea bideratzea izango da, elkarriketa horiek gerta daitezen beharrezko baldintzak ahalbidetzea.

Horretarako, honako orrialde hauetan, hainbat baliabide eskaintzen ditugu ikasgelan elkarriketa parte-hartzailea eragiteko, eta zenbait galdera irakasleak elkarriketa sustatzeko eta gidatzeko baliabide dituzan. Esan beharrik ez dago, irakasle bakoitzak erabakiko duela horietako zein erabili, zein ez edota baten bat erantsi nahi ote duen. Jarduera errazteko galderen zerrenda bat aurkezten dizuegu, ikasgelan elkarriketa arakatzaileria sustatzeko baliagarri gerta daitekeena:





**PELIKULA IKUSTERA  
JOAN AURRETIK  
IRAKASLEAK  
EGITEKO LANA**



**ARAKATU**

Nola jakin dezakegu...?  
Nola bila dezakegu...?

**HIPOTESIAK FORMULATU**

Zer azalpen izan dezake honako honek?  
Zer gertatuko litzateke baldin eta...?

**BESTE BIDE BATZUK BILATU**

Zer beste modutan azal dezakegu...?  
Zeini bururatzen zaio beste konponbide bat?

**DEFINITU**

Hitz hori erabiltzen duzunean, zer esan nahi duzu?

**PAREKOTASUNAK ETA DESBERDINTASUNAK BILATU**

Zer dute amankomunean...?

**SAILKATU**

Zenbat modutan sailka dezakegu?

**ARRAZOIAK ESKATU**

Zer arrazoi duzu honako hori esateko?

**ONDORIOAK ATERA**

Baieztapen hori egia bada, zer ondoriozta dezakegu?

**KAUSAK ETA ONDORIOAK ERLAZIONATU**

Hori gertatzen denean, zein dira ondorioak?

**HITZEZKOA EZ DEN HIZKUNTZATIK HITZEZKORA ITZULI**

Zer adierazi nahi du keinu horrek?

**LABURTU**

Hitz gutxitan azal dezakezu...?

Metodologia-proposamen zehatz honek elkarrizketa du oinarri beraz; azken batean, etika biziaren trebakuntza bat da. Bizikidetzarako, pertsonen arteko errespeturako eta garapen intelektualerako beharrezko prozedurak eta jarrerak martxan jartzen dira. Era ordenatu eta sistematikoan hitz egiteak lagunduko du elkarrizketa modu eraikitzailean erabiltzeko ohitura hartzen. Elkarrizketa batean, beste pertsonaren iritzia eta hitz egiteko txanda errespetatzen dugu, eta entzuteko gaitasuna eta pazientzia trebatzen ditugu. Honez gain, gure iritziak argudiatzen eta gure kideek zer pentsatzen duten hobeto eta sakonago ikasten dugu; modu horretan, errazago zaigu haiek ulertzea eta haiekin enpatizatzea.





**PELIKULA IKUSTERA  
JOAN AURRETIK  
IKASLEEKIN  
EGITEKO LANA**



**FILMAREN AZALA ETA  
IZENBURUTIK ABIATUTA  
ELKARRIZKETARAKO GIDA**

“Paddington 2” Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldian ipiniko dute eta bertara joango gara filma ikustera. Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Sailak eta Donostia Kulturak antolatzen dute jaialdia.

1. Zer dakigu pelikula honi buruz?  
Aurretik zerbait entzun dugu?
2. Nortzuk dira pelikulako zuzendariak?
3. Zer adierazten du izenburuak?
4. Zer esaten digu pelikularen azaleko irudiak?
5. Zer informazio gehiago atera dezakegu pelikulako horma-iruditik abiatuta?
6. Filmaren edukiari buruz hipotesiren bat egin dezakegu hemendik abiatuta? Zer istorio mota kontatuko da?



**PELIKULA IKUSTERA  
JOAN AURRETIK  
IKASLEEKIN  
EGITEKO LANA**



Paddington, jatorrian, Michael Bond idazleak idatzitako liburu-bilduma bateko pertsonaia zen. 1956ko Gabonetan, Michael Bondek peluxe-hartz bat erosi zion opari Brenda emazteari. Panpina gisa dagoeneko existitzen zen. Etxera ekarri zuen, eta idazlea Paddington geltokitik gertu bizi zenez, izen hori eman zion peluxeari eta hari buruzko istorioak idazten hasi zen, entretenigarri gisa. Azkenik, liburu-bilduma bilakatu zen; gaztea zenean irakurtzea gustuko zituen moduko istorioak idazten zituen.

Gerora, marrazki-bizidunak egin ziren BBC telebista ingeleserako. Hauxe da lehen kapitulua

1. Nor da ipuinaren egilea?  
Eta ilustratzailea?
2. Nor da pelikularen egilea?
3. Nor da ipuinak zinemara egokitu dituen gidoilaria?
4. Zertan bat datoz ipuineko eta pelikulako lau azal hauek?  
Eta zertan dira ezberdin?





2

**PELIKULA IKUSTERA  
JOAN AURRETIK  
IKASLEEKIN  
EGITEKO LANA**

**GIZA ESKUBIDEEN DEKLARAZIO  
UNIBERTSALARI ERREPASOA**

Zinemaldiaren egitarauan urteko giza eskubideekin lotutako labor eta film luze batzuk biltzen dira. Helburua, hiritarren artean bake eta bizikidetzaren kultura zabaltzea da tolerantziaren, elkartasunaren, errespetuaren, aniztasunaren eta gizarte kohesioaren pedagogia eginaz.

Garrantzitsua da neska-mutilak jabetzea Giza Eskubideak ezinbestekoak direla komunitate eta pertsonen arteko harreman egonkorrek eta orekatuak finkatzeko eta honetarako nahitaezkoa da hauen ezagutza izatea. Haur txikienekin 'eskubide' kontzeptuari buruz hitz egin dezakegu, noizbait hitz hori entzun duten, noiz erabiltzen den eta zer esanahi duen. Handienekin Nazio Batuek 1948an aldarrikatu zuten Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 10 artikulua garrantzitsuenen errepaso hau aztertuko dugu:

**Haurren Eskubideen Aldarrikapena**

1

Berdintasunerako eskubidea, arraza, erlijioa edo nazionalitatea kontuan hartu gabe.

2

Babes berezia jasotzeko eskubidea, fisikoki, mentalki eta sozialki osasuntsu eta libre haz daitezen.

3

Izen bat eta nazionalitate bat izateko eskubidea.

4

Elikadura, etxebizitza eta osasun-arreta egokia izateko eskubidea.

5

Urritu fisiko edo psikikoek hezkuntza eta arreta bereziak jasotzeko eskubidea.

6

Familiak eta gizarteak maitatua eta ulertua izateko eskubidea.

8

Arrisku-egoeratan arreta eta laguntza jasotzen lehenak izateko eskubidea.

7

Doako hezkuntza baterako eskubidea. Ongi pasatzeko eta jolasteko eskubidea.



9

Abandonatua eta lanean esplotatua ez izateko eskubidea.



10

Munduko pertsona guztien arteko elkartasuna, adiskidetasuna eta justizia sustatzen duen hezkuntza jasotzeko eskubidea.



**PELIKULA IKUSI  
ONDOREN  
IKASGELAN  
EGITEKO LANA**

**PELIKULA HITZ BATEAN**

Borobilean eserita irakasleak pelikula zer iruditu zaien galdetuko du eta partaide bakoitzak **hitz bat** erabiliz erantzun beharko du. Ikasleen adinaren arabera eta laguntza modura, arbelean adjektiboen zerrenda egin dezakegu aurrez guztion artean.

**PERTSONAIEN DESKRIBAPENA**

Borobilean eserita jarraituko dugu. Arbelean ondorengo zutabeak dituen taula modukoa egingo dugu eta haurrekin pelikulako pertsonaia nagusien zerrenda osatu ostean nolakoak diren eta zer ezaugarri dituzten aztertuko dugu. Aurreko ariketan bezala, laguntza modura eta neska mutilen parte hartzea errazteko, ezaugarrien edo adjektiboen zerrenda izan dezakegu arbelean prestatua.

|                             | <u>Nolakoa da?</u> | <u>Zer gauza egiten ditu?</u> |
|-----------------------------|--------------------|-------------------------------|
| PADDINGTON                  |                    |                               |
| MR. BROWN                   |                    |                               |
| MS. BROWN                   |                    |                               |
| AMONA                       |                    |                               |
| HENRY BROWN                 |                    |                               |
| JUDY BROWN                  |                    |                               |
| IZEBA LUCY                  |                    |                               |
| PHENIX<br>BUCHAMAN- MAGOA   |                    |                               |
| MR GRUBER                   |                    |                               |
| KNUCKLES-SUKALDARIA         |                    |                               |
| MADAME<br>KOZLOVA- BIDENTEA |                    |                               |





**PELIKULA IKUSI  
ONDOREN  
IKASGELAN  
EGITEKO LANA**

**GIDOIARI BURUZ**

Irakasleak ondorengo galderak egin ditzake:

- 1. Nola laburtuko genioke lagun bati pelikulan gertatzen dena?**
- 2. Zein izan da gehien gustatu zaizuen pasartea? Zergatik?**

Ikasleek bigarren galderari ematen dizkioten erantzunen arabera, taldean, guztion artean gai horiei buruz hitz egiten joango gara. Irakaslea, galderen bidez, loturak egiten joango da pelikulako gai nagusien eta ikasleen erantzunen artean. Jarraian, familia, auzoa eta laguntasuna kontzeptuei buruz taldean hausnarketa sustatzeko galderak aurkeztzen ditugu:

**ELKARRIZKETA SUSTATZEKO PROPOSAMENAK**

**Familia**

- Zein da Paddingtonen familia?
- Zeintzuk dira beharrezko osagaiak norbait familia bezala ulertzeko?
- Zer familia mota daude zuen ikasgelan?



**Auzoa: Nothin Hill- Londres**



- Zer merkatu famatu dago auzo honetan? (Portobello)
- Nolakoa da Paddington eta bere familia bizi diren hiri? Benetakoa da? Zer da hiri horretatik gustuko duzuen? Eta gustuko ez duzuen? Horrelako lekuren bat ezagutzen duzue?
- Zuen hiriak pelikulan agertzen den hiriaren antza dauka? Eta zuen auzoak? Zertan bai eta zertan ez?



**PELIKULA IKUSI  
ONDOREN  
IKASGELAN  
EGITEKO LANA**



**Laguntasuna**

- Nortzuk egiten dira lagun filmean?
- Zer ekarpen egiten diote elkarri lagunek pelikulan?
- Laguntasunak zer sentimendu uste duzue biltzen dituela bere barnean?  
(Adibidez, maitasuna, zaintza, beldurra, indarkeria...)
- Askotan esaten da benetako lagunak esku bateko hatzekin zenbatu daitezkeenak direla.  
Ados zaudete esaera honekin? Zergatik?
- Zer osagai esango zenukete behar duela harreman batek laguntasun harremana izateko?
- Laguntasun mota desberdinak daude? (Lagunik hoberenak, ezagunak...)
- Laguntasunak, zertarako balio du?
- Telebistarako marrazki-bizidunen lehenengo atala gogoratuz, nola ezagutu eta elkartzen da Paddington Londresen duen Brown harrera familiarekin?

**ARIKETA:**

**Gure Scrap Book  
edo Pop Up Book  
egingo dugu!**

